

Iruzur fiskala

Aberatsenen ihesbidea inbertsio sozietate berezietan

Krisialdi ekonomiko eta finantzarioa dela-eta, Espainiako Gobernuak dirutza eta ondasun handien gaineko zerga berri bat sortzea aztertzen ari da. Egun, aberatsenen ondasunak Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateetan (KAIS) babestuta daude eta sozietate horiek beste herrialde batzuetara ihes egin dezakete, EAEn gertatu bezala.

DANIEL UDALAITZ

AURTENGO MAIATZEAN 3.232 Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietate (KAIS) zeuden Espainiako Estatuan, 443.509 akziodun zituzten eta, guztira, 25.645 milioi euroko balioa duen ondarea kudeatzen zuten. Sozietate horietatik 70ek EAEn dute egoitza. 2009ko urtearen erdialdean 212 ziren, baina askok Espainiako Estatuko beste lurralde batzuetara alde egin zuten, EAeko hiru lurraldeetan 2009ko amaieran egin ziren aldaketa fiskalak zirela eta.

Aberatsenen ondasunak babesten dituzte; KAISek kudeatzen duten ondare izugarria politika fiskal bidezkoago eta banatzaileagoren jomugetako bat izan liteke. Gobernuak, are gehiago bere burua sozialdemokratatzat duen gobernuak, soilik fiskalitatea aldatuta, baliabide garrantzitsuak lortuko lituzke, merkatuen presiopean ezartzen ari den doikuntza fiskalerako. Espainiako Estatuko sektore ezker-tiarrak sozietate hauetan “guraizea” sartzea eta duela urte batzuk indargabetutako ondarearen, oinordekotzaren eta dohaintzen gaineko zerga berrezartzea eskatzen ari dira. Baina zer dira KAISak?

Zer dira KAISak?

Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateen siglak dira. Inbertsio kolektiboak egiteko modu bat da, Europan nahiko ohikoa, bereziki Luxenburgon, Suitzan, Italian eta



Espainiako Estatuko KAISen rankingean, BBVAren sozietate gestore bat dago, Alicia Koplowitz du titular nagusi eta ia 422 milioi euroko ondarea du.

Espainiako zein Frantziako Estatu-tan. Espainiako Estatuan KAISak aberatsenei zergak saihestea ahalbidetzen dien tresna finantzarioa da —hau da, zerga ordainketen saiheste legala—. Sozietate anoni-moak sortzen dira finantza aktiboe-

tan inbertitzeko eta, hala, Espainia-ko Konstituzioak ezarritako progresibotasuna —gehiago duenak edo gehiago irabazten duenak gehiago ematea— urratzen da. Abantaila fis-kal ugari dituzte: sozietateen gaine-ko zergan KAISek etekinen %1 tri-

EAEko KAIS gehienek alde egin dute

2009. urte amaieran EAEn KAISen gaineko fiskaltatea handitu izanak sozietate horiek alde egitea eta deslokaltzea eragin du. 2009. urtearen erdialdean egoitza EAEn zuten 212 KAISetatik 70 baino ez ziren geratzen aurtengo maiatzaren. Datu hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalako presidente Julio Segurak maiatzaren 25ean Diputatuen Kongresuan jakinarazi zuen. Segurak Espainiako Estatuan sozietate horien aurkako neurriak hartzeak deslokaltzazioaren arriskua dakartela ohartarazi zuen, eta EAEn gertatutakoa adibide moduan erabili zuen.

Ihesa Gasteizko Gobernuak eta foru aldundiek KAISei buruzko araudia ezarri zutenean gertatu zen. 2009a bitartean sozietate horiek etekinen %1 tributatzan

zuten eta aldaketa fiskalak zama %28raino igo zuen, teoriarik merkatatutako sozietateei ezartzen zaiena. Espainiako Estatuako gainerako lurraldeetan, orain arte behintzat, zergak %1ean eutsi dio, beraz, seguruena egoitza EAEn zuten inbertsio tresna finantzario horien jabeek babeserako egoitza Estatuako gainerako lurraldeetan duten antzeko sozietateetan bilatu dute.

Ihesa eta deslokaltzazioa espainiar Gobernuak oraindik zehaztu ez den aberetsuen gaineko zerga berezia ezartzeko asmoa zuela jakin zenean gertatu zen. Horrek esan nahi du urtea amaitu baino lehen EAEn KAISak desagertu egingo direla, beste latitude batzuetan babestuta egongo direlako edo beren ondasunak berriro ere paradisu fiskaltako kontuak gizentzen ariko direlako.

butatzen dute eta sozietateek, teoriarik, %28 tributatu behar dute EAEn. Eta KAISetako jabeek edo kideek sozietatearen akzioak saltzean soilik ordaindu behar diote altxor publikoari. Horregatik, kapital handien jabeek gehien erabiltzen duten inbertsio tresnetako bat da.

Sozietate horiek zenbait baldintza bete behar dituzte: 100 akziodun edo gehiago izan behar dituzte; inbertsio egiteko mugak dituzte; kapital aldakorrek estatutuaren finantutako maximoaren eta minimoaren artean egon behar du; 2.400.000 euroko gutxieneko kapitala izan behar dute; KAISen baimena, erregistria eta kontrola BMBNk (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak) ikuskatzen du.

Espainiako Estatuako KAIS nagusien artean bi hauek daude: bata, rankingeko lehena, BBVAren sozietate gestore bat da (BBVA Patrimonios), Morinvest kudeatzen du, Alicia Koplowitz du titular nagusi eta ia 422 milioi euroko ondarea du; eta bestea Keblar de Inversiones da, Amancio Ortega titular nagusi duena eta 177 milioi euroko ondarea duena.

Aberatsak "ihes egiteko" prest

Espainiako Gobernuak aberatsen gaineko zerga berezia aztertzen ari dela iragartzeak KAISen "ihesa" eta deslokaltzazioa eragiten ari da, zerga handiagoak ordaindu beharra saihesteko. Badirudi Espainiako gobernuak hainbat aukera aztertzen ari dela sozietate horien gaineko

Aurtengo maiatzaren 3.232 KAIS zeuden Espainiako Estatuan, 443.509 akziodun zituzten, 25.646 milioi euroko ondarea kudeatzen zuten eta etekinen %1 baino ez zuten tributatzan, sozietateen gaineko zergari dagokion %35 beharrean

zergei dagokienez: egungo %1etik %5era igotzea; %25era iristea; ala sozietateen gaineko zergaren ohiko tipoarekin parekatzea, hau da, %35era arte igotzea.

Espainiako Estatuako banka ez dago gobernuak ondare handien gaineko zergen igoera zehazteko zain, eta dagoeneko kapitalen irteera masiboa gauzatzeko formulak prestatzen ari da. Astekari honek

jakin ahal izan duenez, ondareen kudeatzaileak bezeroei kapitala fiskaltate onuragarriagoa duten EBko beste herrialde batzuetara eramatea eskaintzen ari dira, EB barruan kapitalak mugitzeko dagoen askatasuna baliatuz. Dirudienek, gehienek dagoeneko paradisu fiskaltzat jotzen ez den Luxenburgoko aukeraturiko dute, baina badira Frantziako Estatuaren edo Alemaniaren aukera hobesten duten gestoreak ere.

Ondareen gaineko zerga berpiztea

Zenbaitzuen ustez, KAISak zergapetu beharrean, hobe litzateke 2008an indargabetu zen ondarearen gaineko zerga berrezartzea. Zergak 108.182 eurotik gorako ondareei ezartzen zitzaizkien eta ia milioi bat pertsonen eragiten zien. Estatuak urtean 2.121 milioi euro jasotzen zituen zerga horren bidez, 2011n pentsioak izoztuz aurreztuko dituen 1.500 milioiak baino gehiago. ■

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Eraikuntzarako materiala

GALPARSORO

Salmenta:

axulejo eta gresa
komunak • manparak • komuneko altzariak
obra hondakinen biltzea

☎ 943 300 145

Faxa: 943 300 012

Borda Berri industrialdea, 5. pab.
Andoain (Gipuzkoa)